

# Hamar lagun atxilotu dituzte Errenteria eta Donostian

'Iparhaizea' izeneko ETaren talde laguntzailea osatzea leporatzen diete

**E**rrenteria eta Donostian Espainiako polizi indarrek atzo burututako operazioan, bederatz lagun atxilotu dituzte gutxienez. Gobernu Zibilak adierazi duenez, ETako 'Donostia komandoa' laguntzen zuen talde bateko partaide dira eta beraien da atzo Aginagan aurkitu zuten 'zuloa'.

## DONOSTIA

Morlansko tiroketa gertatutako etxean, zaurituta atxilotutako Maria Eujenia Muñagorri gain, beste zortzi lagun atxilotu ditu Poliziak. Aginaga eta Amara Zaharreko beste bi lagun ere atxilotuta egon daitezke.

Goizeko lau t'erdia aldera Sergio Garzia 20 urteko donostiarra atxilotu zuten paisanozko goardia zibilek Amara Zaharreko bere etxean. Erregistro egitean ez zuten ezer aurkitu eta gaztea atxilotuta eraman zuten goardia zibilek. Handik ordubetera berriro itzuli ziren goardia zibilak, zuzenean sartu ziren Sergioren gelara eta pistola batekin atera ziren oraingoan.

Errenterian, Amaia Segurola atxilotu zuten goizeko seiak aldera. Handik ordubetera, Gaztaño auzoan, Jose Mari Mujika abokatua eraman zuten.

Errenteriko Gabierrota auzoan etxe bat miatu eta prezintatu egin zuten Espainiako polizia indarrek. Herri honetako Pontika auzoan beste etxe bat ere miatu zuten, eta, leku-koen arabera, bi lagun eraman zituzten bertatik atxilotuta: Rafa Llorente eta Maitane Sagastume senar-emazteak. Etxeko atea txikituta utzi dute, sarreran bi tiro marka daude eta sukaldean odol arrastoak ageri dira.

Donostiako Alde Zaharrean Joseba Arizmendi 20 urtekoa eta Ainhoa Crespo 18koa atxilotu zituzten, goizeko zazpiak aldera.

Auzo honetan Federico taberna, tabernaren gaineko etxebizitza eta 31 de Agosto kaleko beste etxe bat miatu zituzten, bertaratutako goardia zibil eta polizia nazional olde baten.

Martutene auzoan Amara Zaharreko lagun baten lantokira joan zen Polizia, honen etxetik pasa eta gero, baina lerro hauek idazterakoan ez zegoen garbi atxilotua ote zegoen ala ez.

Donostiako Gros auzoan bi etxe miatu dituzte pozili indarrek, eguerdiko 12,30ak aldera. Etxe hauetako batean, bila zihoazena falta zela eta, haren lagun bat eraman zuten poliziek, nazionalitate frantsesekoa. Joan Vazquez du izena atxilotutako honek.


Alde Zaharreko Haritza izeneko elkartean ere sartu ziren bertako orma eta ateak apurtuz.

## 'IPARHAIZEA' TALDEKO PARTAIDE

ETako 'Donostia komandoaren' laguntzaile zen 'Iparhaizea' taldea osatzen zutela atxilotuek azaldu zuen atzo Luis Roldanek, Goardia Zibileko zuzendari nagusiak, Gobernu Zibilean eman zuen prentsaurrekoan.

Pasaia eta Errenteria aldean burutu diren azken atentatuen egile izatea leporatu zien Roldanek; Pasaia portuko garitaren kontrakoa, Trintxerpeko Goardia Zibilaren koartelaren kontrakoa eta baita Irunen ustez droga trafikatzailer baten kontra burututakoa.

Iturri hauen arabera, Aginagan 'zulo' bat aurkitu zuten atzo bertan, lehergai eta arma ugari zuena. 'Iparhaizeako' kideek erabiltzen zutela 'zulo' hau adierazi zuten. Bertan bost



Luis Roldan Donostian izan zen operazioa zuzendu, eta gero azaltzen VILLAGRAN

✓ Aginagan leherkari eta arma ugari zituen 'zulo' bat aurkitu dutela azaldu zuen Gipuzkoako Gobernu zibilak, eta atxilotuei Pasaia eta Errenterian burututako zenbait atentatu leporatu zien.

pistola, lau subfusil, bi karabina, eskopeta bat, CM fusil bat eta lehergai ugari, amonala, aurkitu zutela azaldu zuten. Bestalde, Irunen beste talde launtzaile bat lokalizatu duela Goardia Zibilak adierazi zuen Roldanek, baina atzo atxilotetak egiten saiatu ziren arren, ez zuela emaitzik izan.

## LEHENENGO PROTESTA EKINTZAK

Informazio hau idazterako garaian protesta manifestazio

bat hasi berria zen Donostian. Arratsaldean berriz, autobus bat erre zuten N-1 errepidean Errenteria eta Donostia artean.

Bizkaian ere errepideak moztu zituzten zenbait errepidetan eta autobus zerbitzua eten egin zuen Bilbo Bus -ek.

Gaurko mobilizapenak deitu ditu Hego Euskal Herriko hiriburuetan Koordinakunde Abertzale Sozialistak (KAS).

# ZU NORA,

# Egunkaria

# HARA!!

## LAREDOko BIDEA:

- MIOÑO
- CASTRO URDIALES
- ARENILLAS
- ORIÑON
- LAREDO
- COLINDRES
- NOJA
- ISLA
- AJO
- SANTOÑA

## VALLE de MENAko BIDEA

- VILLASANA de MENA
- ESPINOSA de los MONTEROS
- VILLARCAYO
- NOFUENTES
- MEDINA de POMAR
- TRASPADERNE
- CADIÑANOS
- PEDROSA de TOBALINO
- QUINCOSES de YUSO

## SANTANDER-LLANES BIDEA

- SUANCES
- COMILLAS
- SANTILLANAS del MAR
- COBRECES
- CABEZÓN de le SAL
- SAN VICENTE de la BARQUERA
- VIDIAGO
- PANES
- UNQUERA
- LLANES

## LANDAK

- Uztailaren 13tik aurrera
- LABENNE
  - S. M. de SEIGNAUX
  - CAPBRETON
  - HOSSEGOR
  - TARNOS
  - BOKALE (Boucau)
  - ONDRES

## NAFAR PIRINEOA

Uztailaren 15etik aurrera goizeko 7etarako EGUNKARIA zure eskura

- AURIZBERRI (Espinal)
- AURITZ (Burguete)
- GARRALDA
- EIAURRIETA
- EZKAROZ
- OTSAGI
- IZABA
- ASOLAZEKO KANPINA
- BELAGOAKO ATERPEA
- URZAINKI
- ERRONKARI
- GARDE
- BURGI
- "MAR del PIRINEO" KANPINA (ESako urtegia)
- ESA (Yesa)

## ERRIOXA

- HARO
- ANGUCIAGA
- CASALAREINA
- Sto. DOMINGO de la CALZADA
- CASTAÑARES de la RIOJA
- EZCARAY
- NAJERA
- S. ASENSIO
- BRIONES
- S. VICENTE de la SONSIERRA
- CENICERO
- FUENMAYOR
- LOGROÑO
- CALAHORRA
- ARNEO
- QUEL
- AUTOL
- ALDEANUEVA DE EBRO
- BALNEARIO DE ARNEDILLO

# EUSKALDUNOK, nonnahi,

# Egunkaria